

2019ko Ikaskuntza-zerbitzuko sariak

Proiektuak aurkezteko oinarriak

Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko sareak, Educo-k eta Edebé argitaletxeak dei egiten diete Haur-Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeei eta Espainiako estatuko gizarte-entitateei **2019ko Ikaskuntza-zerbitzuko sarietan** parte har dezaten.

Sarien helburuak

1. Ikastetxe eta gizarte-entitateek ikasleen ikaskuntza osatzeko komunitatearen bizi-kalitatea hobetzera zuzenduta antolatzen dituzten jarduerak eta lana aitortzea.
2. Ikaskuntza-zerbitzuko praktikak aitortzea hezkuntza-arrakastarako eta gizarte-konpromisorako tresna gisa.
3. Kultura partizipatiboa, solidarioa eta gizalegezko-konpromisoa duena sendotzea eta zabaltzea, horretarako ikaskuntza-zerbitzuaren hedapena eta inplementazioa suspertuz.

Ezaugarriak eta betekizunak

Nork har dezake parte?

2019ko Ikaskuntza-zerbitzuko sarietan parte hartzen ahalko dute Estatu Espainoleko Haur-Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako¹ **ikastetxe** guztiek –publikoak, itunduak edo pribatuak–, baldin eta Ikaskuntza-zerbitzuko praktikak egiten ari badira.

Edozein Autonomi Erkidegotan Ikaskuntza-zerbitzuko praktikak egiten ari diren **gizarte-entitateek** ere (hezkuntza ez arautuko entitateak, gazte-mugimendu eta -elkarteak, aisialdi-klubak eta skout-taldeak, boluntarioritza-, ingurumen- eta kultura-elkarteak, eta abar) parte har dezakete.

Parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-entitateek indarrean diren legeak errespetatu behar dituzte, eta, bereziki, haurrak babesteko neurriekin lotutako guztia.

Aurreko deialdietan sarituak izan diren ikastetxeek eta gizarte-entitateek ezingo dute proiektu berbera aurkeztu, baina badute aukera beste batzuk aurkezteko.

Aurreko deialdietan finalistak izan ziren ikastetxeek eta gizarte-entitateek proiektu berbera aurkez dezakete –betiere 2018-2019ko ikasturtean egin bada–, edo besteren bat.

¹Kontzeptu horretan sartzen dira honako hauek: oinarritzko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako eta Goi-mailako prestakuntza-zikloak, Lanbide Heziketa egokitua edo berezia eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen lan-ikasketak, Lanbide Heziketa arte ikasketetan, helduen eskolak eta lanerako prestakuntza.

Sariak unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sektoreetara zuzentzen direnez, erakunde unibertsitarioek ezingo dute aurkeztu unibertsitateko ikasleek egindako proiekturik, baina parte har dezakete deialdi honetara aurkezten diren ikastetxe edo gizarte-entitateen erakunde-laguntzaile gisara.

Halaber, Administrazio publikoak deialdi honetatik kanpo geratuko dira; alabaina, aurkezten diren ikastetxe edo gizarte-entitateen erakunde-laguntzaile gisara aurkez daitezke.

Ezinbestekoa da deialdira aurkezten den proiektuak **erakundeko** (ikastetxea edo gizarte-entitatea) **zuzendariaren** bermea edukitzea, eta ez bakarrik proiektuaren ardura duen pertsonarena.

Ikastetxe edo gizarte-entitate bakoitzak **nahi beste proiektu** aurkez ditzake, betiere hemen azaldutako oinarri hauek betetzen badituzte.

2. Zer proiektu-mota aurkez daitezke?

2018-2019ko ikasturtean bukatu diren Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak baino ez dira onartuko. Beraz, ez dira aintzat hartuko aldi hori baino lehen egindako eta amaitutako esperientziak edo praktikan oraindik ere zehaztu ez diren proiektuak.

Aurkezten den Ikaskuntza-zerbitzuko edozein esperientziak bat etorri beharko du honako bi eredu hauetakoren batekin:

A eredu: talde edo ikasgela baten proiektua (edo adin-talde edo kolektibo zehatz bat gizarte-entitateen kasuan).

B eredu: ikastetxe edo gizarte-entitate osoaren proiektua, ikastetxe gehiagorekin partekatutakoa edo ikasgelaz goragoko beste edozein neurrikoa.

Honako hau jotzen dugu **Ikaskuntza-zerbitzutzat**:

Ikaskuntza-prozesuak eta komunitate-zerbitzuak proiektu bakar batean uztartzen dituen hezkuntza-proposamena, ondo antolatua, zeinetan parte-hartzaileek ingurunearen benetako beharren inguruan lan egiten ikasten baitute, hori hobetzea jomuga hartuta.

3. Zer baloratuko da bereziki?

Hezkuntza-maila eta proiektuaren gaia edozein dela, epaimahaiak bereziki baloratuko du:

1. Ikaskuntzen eta egindako zerbitzuaren arteko lotura estua.
2. Zerbitzuaren bidez haurrek eta gazteek artatzen duten gizarte-premiaren egiazkotasuna eta garrantzia.
3. Haurren eta gazteen parte-hartze oso aktiboa proiektuan zehar: premien ikerketan, proiektuaren diseinuan, hura gauzatzean eta amaierako ebaluazioa egitean.
4. Tokiko ikastetxeen eta gizarte-entitateen –eta haien hartzaileen– arteko sare-lan estua, proiektua ikuspegi komunitarioaz eta elkarrekikotasunaz egiteko.
5. Justizia soziala eta giza eskubideak aintzat hartzea eta ikasleen artean hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sendotzea.
6. Gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden herritarrek bultzatutako proiektuak.

7. Proiektuaren garrantzia, kontuan hartuta zenbat haur eta gaztek parte hartzen duten, zerbitzuak zenbat hartzaile dituen eta proiektuaren iraupena.
8. Ikastetxetik edo gizarte-entitatetik kanpo garatutako zerbitzua, ingurunean ageriko inpaktua duena eta komunitatean jorratutako arazoaren inguruko gizarte-sentsibilizazio/kontzientziazioa eragiten duena.
9. Proiektuaren jasagarritasuna eta konpromisoaren jarraitutasuna.
10. Ikaskuntza-zerbitzuaren kontzeptua ikusaraztea, hezkuntza-proposamena den heinean.

4. Nola aurkeztu proiektu bat?

Proiektu bakoitza **formatu digitalean** aurkeztuko da, **estatuko edozein hizkuntza ofizialetan** idatzita, eta horretarako honako hau egin beharko da:

1. Izena emateko online **inprimaki** bat bete, hemen eskuragarri: www.aprendizajeservicio.com
2. Inprimakiarekin batera, proiektuaren inguruko **agiri deskriptibo** bat erantsi (ikus 1. Eranskina). Gehieneko luzera:
 - A ereduko proiektuak: gehienez, 6.000 hitz eta 12 orri.
 - B ereduko proiektuak: gehienez, 7.000 hitz eta 14 orri.
3. Esperientziaren inguruko **bideo** baten esteka erantsi agiri deskriptiboan (ikus 2. Eranskina).

Baztertu egingo dira adierazitako neurriak gainditzen dituzten proiektuak edo 1. Eranskinean zehazten diren osagaietakoren bat aurkezten ez dutenak.

5. Nora eta noiz bidali behar da proiektua?

Online inprimakia eta bideoaren esteka duen proiektuaren agiria **2019ko martxoaren 12tik 2019ko irailaren 15era bitarte** aurkeztu beharko dira, Ikaskuntza-zerbitzuko sarien webgunearen bidez: www.aprendizajeservicio.com

6. Zeintzuk dira sariak?

3 sari aztura osasungarriak sustatzeko eta obesitatea prebenitzeko sailean, **DKV aseguru**en laguntzarekin, bakoitza 1.500 eurokoa.

3 sari elkartasuna / giza eskubideak edo adinekoak sailean, **La Caixaren Gizarte-ekintzaren** laguntzarekin, bakoitza 1.500 eurokoa.

2 sari gazteen ahalduentza sustatzeko sailean, **Princesa de Girona Fundazioaren** laguntzarekin. Sariak aukera emanen du ikastetxearen edo gizarte-entitatearen ordezkaritza batek Fundazioak 2020an antolatuko duen Jardunaldian parte har dezan.

1 Ikaskuntza-Zerbitzu Sariak Haur eta Lehen Hezkuntzarako. Etapa horietako haurrak dira protagonistak, Iberoamerikar Estatuaren Erakundea da kolaboratzailea, eta sariak hezkuntza-materialak dira.

Sari bat irakurketa sustatzeko sailean, **Edebéren** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da.

Sari bat garapenaren aldeko lankidetza sailean, **Educoren** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da.

Sari bat ingurumena sailean, CENEAM-en (Ingurumen-Hezkuntzako Zentro Nazionala) laguntzarekin. Saria 4 eguneko egonaldia da Valsaíneko (Segovia) Ingurumen Hezkuntzako Aterpetxean, 50 ikaslerendako eta haien irakasleendako.

Sari bat genero-berdintasuna sailean, **Ana Bella Fundazioaren** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da.

Sari bat inklusioa sailean, **Plena Inclusión-en** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da.

Sari bat inmigrazioa eta elkarbizitza sailean, **Torresco elkartearen** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da.

Sari bat hezkuntza ez arautuko Ikaskuntza-zerbitzuko sailean, **Arci Naturereren** laguntzarekin. Saria 1.500 euro dira.

Sari bat ikuspegi kooperatiboko Ikaskuntza-zerbitzuko sailean, **GSD Hezkuntzaren** laguntzarekin. Saria 1.500 euro dira.

6 sari Iruñeko (Nafarroa) hiriak –topaketaren antolatzaileak– aurkeztutako Ikaskuntza-zerbitzuko 6 proiekturen diseinuentzat, lehenengo hirurak 1.500 eurokoak, eta beste hirurak 1.000 eurokoak, Haur-Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo eta LHko ikastetxeentzat.

Sari bat Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-proiektu globalean txertatzeko sailean, **Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko Sarearen** laguntzarekin. Saria material didaktikoa da, **Abacus Kooperatibak** emana.

Gainera, sari hauen guztien osagarri, saritutako ikastetxeetako 4 ordezkari (2 hezitzaile eta 2 ikasle) sari-banaketan parte hartuko dute. Ostatu-gastuak eta joan-etorrikoak enpresa eta entitate laguntzaileek ordainduko dituzte.

7. Sariak dakartzaten konpromisoak

Sariak onartzeak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- a) Saritutako ikastetxeek eta gizarte-entitateek konpromisoa hartzen dute Ikaskuntza-zerbitzuko Estatu Topaketaren XII. ediziora joateko –enpresa eta entitate laguntzaileek finantzatuta–. Topaketa 2019ko abenduaren 13an izanen da, Iruñean, eta lau laguntzaile (2 hezitzaile eta 2 ikasle) egonen dira, gutxienez, talde bakoitzeko.
- b) Dirutan emandako sarien zenbatekoa aurkeztutako esperientzia garatzeko eta hedatzeko inbertitu beharko da, edo, bestela, berri bat abiatzeko. Esperientzia ikastetxe edo gizarte-entitate bat baino gehiagoren artean aurkeztuz gero, ukitutako alde guztiek adostuko dute nola banatu saria, eta epaimahaiak joko du esperientzia aurkezteak berekin dakarrela alde aurreko akordio hori.

8. Non eta noiz emango dira sariak?

Sariak **2019ko abenduaren 13an, ostiralarekin**, emango dira, Iruñean (Nafarroa) egingo den Ikaskuntza-zerbitzuko Estatu Topaketaren XII. edizioaren barruan.

Saritutako proiektuak 2019ko azaroan zehar emango dira jakitera, Ikaskuntza-zerbitzuko Sarien webgunean: www.aprendizajeservicio.com

9. Nork ebaluatzen ditu proiektuak?

Epaimahaia honako elkarte hauetako kideek osatzen dute: Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko Sarea, Educo, Edebé argitaletxea eta Sarietan laguntzen duten entitateak eta erakundeak. Ikaskuntza-zerbitzuan adituak diren 60 lagun baino gehiagok parte hartzen dute proiektuen ebaluazioan.

10. Oinarrien onarpena

Ikastetxe eta gizarte-entitateez bezainbatean, 2019ko Ikaskuntza-zerbitzuko Sarietan parte hartzeak berekin dakar deialdi honen oinarriak onartzea, baita epaimahaiaren ebazpena ere, zeinak irabazleak hautatuko baititu instantzia bakarrean eta berraztertze- eta apelazio-errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe.

Behin jakinda epaimahaiaren erabakia, deialdi honetara aurkezten diren proiektu guztiak, sarituak izan ala ez, esperientzien banku batean jaso eta argitaratzen ahalko dituzte entitate deitzaileek webguneetan, agirietan, ikus-entzunezko materialetan, material pedagogikoetan, paperean nahiz bertsio digitalean egindako hezkuntza-proiektuetan, sare sozialetan, eta abarretan, betiere Espainian Ikaskuntza-zerbitzuaren arloan egiten diren jardunbide egokiak hedatzeko asmoz.

Online izena emateko inprimakia

Izena emateko inprimakia eskuragarri dago www.aprendizajeservicio.com webgunean, eta bertan bideoaren esteka duen proiektuaren agiria ere erantsi beharko da.

1. eranskina: Proiektu-agiriaren eredia

Eskakizunak

- a) Deialdian parte hartzeko, proiektua deskribatzen duen agiri bat, parte-hartzeko eskabidea –biak formatu digitalean– eta esperientziaren inguruko bideo bat aurkeztu behar dira.
- b) Nolanahi ere, jada gauzatu den proiektu bat izango da, eta ez oraindik gauzatu gabe dagoen ideia bat.
- c) A ereduko proiektuetan (ikusitako oinarriak), agiriak **12 orri eta 6.000 hitz** izango ditu **gehienez ere**. B ereduko proiektuetan, 2 orriko sarrera bat idazteko aukera dago, esparru orokorra zedarrizteko, eta agiriak **14 orri eta 7.000 hitz** izango ditu gehienez ere.
- d) Eskemak, argazkiak, mota orotako ilustrazioak eta estekak bestelako online-agirietara erantzen ahalko dira, betiere kontuan hartuta ezin dela gainditu ezarritako gehieneko orri eta hitz kopurua.
- e) Agiriak honako atal hauek deskribatu beharko ditu ezinbestean:
 0. Proiektuaren esparrua (sarrera hau, B ereduko proiektuetarako **soilik**)
 1. Proiektuaren sinopsia, bideoaren esteka eta lotura Garapen Jasangarriko Helburuekin.
 2. Proiektuak artatzen duen gizarte-premia.
 3. Neska eta mutilen hezkuntza-premiak.
 4. Zerbitzuaren neurria eta barne hartzen dituen zereginen deskribapena.
 5. Hezkuntza-helburuak/ gaitasunak eta lotura curriculumarekin.
 6. Ikasteko eta hausnartzeko jarduerak.
 7. Neska eta mutilen parte-hartzea eta protagonismoa.
 8. Proiektuak eskatzen duen sare-lana.
 9. Gauzatzea eta hedapena.
 10. Egutegia eta proiektuaren faseen deskribapena.
 11. Proiektua bultzatzeko behar diren baliabideak.
 12. Proiektuaren ebaluazioa.

Proiektua idazteko orientazioak

0. Proiektuaren esparrua.

Oharra: Atal hau B ereduko proiektuetarako soilik. Ahalik eta modurik argien eta laburrenean deskribatuko da proiektuaren neurria, **gehienez ere 2 orri eta 1.000 hitzetan**. Proiektuan parte hartzen duten entitate/zentroen arteko harremana eta koordinazioa zehaztuko dira, edo, bestela, bultzatzen diren proiektu guztien eskema orokorra.

Hurrengo atalek proiektu zehatz bakar bati buruzkoak izanen dira, nahiz eta 0 atal honetan bat baino gehiago aipatu.

1. Proiektuaren sinopsia, bideoaren esteka eta lotura Garapen Jasangarriko Helburuekin.

a) **Sinopsia:** proiektuaren inguruko sarrera laburra eta argia izan beharko du, **gehienez ere 150 hitzetakoa**, eta bertan modu laburrean deskribatu beharko da parte-hartzaileek egindako zerbitzua eta hari lotutako ikaskuntzak.

Adibidea: DBHko 3. Mailako ikasleek, Indiako hegoaldeko hurrek legenarra dela-eta bizi duten bazterketa-egoera aztertu ondoren, **“JALekin korrika” lasterketa solidarioa** antolatu eta egin dute, **dirua biltzeko** GKE honek Pondy cherry-n gizarte-bazterkeria pairatzen duten hurrei zuzenduta antolatzen dituen urteroko olinpiadak laguntze aldera. Eta, alderantziz, haur hartzaileek **Kabaddi**-a, Indiako kirol-jolasik hedatuenetako bat, erakutsi diete gure ikasleei. Lasterketan, Bigarren Hezkuntzako beste mailetakoa neska eta mutilak ere arituko dira lasterka.

b) **Lotura GJHekin:** proiektua Garapen Jasangarriko zein Helburuekin lotzen den aipatu behar da, labur.

Adibidea: proiektu hau honako GJH hauei lotuta dago:

1. helburua: pobreziaren amaiera.
3. helburua: osasuna eta ongizatea.
4. helburua: kalitatezko hezkuntza.
17. helburua: helburuak lortzeko aliantzak.

c) **Bideoaren esteka:** XXX

d) **Proiektua zein saritara aurkezten den:** hiru sari baino ez dira aipatu behar, lehentasun-hurrenkeran (aukerek bat etorri beharko dute izena emateko inprimakian adierazitakoekin).

Adibidea: proiektu hau honako sari hauetara aurkeztu da:

- 1) Lehenik, inklusioa sailean.
- 2) Bigarrenik, ingurumena sailean.
- 3) Hirugarrenik, elkartasuna / giza eskubideak sailean.

2. Proiektuak artatzen duen ingurunearen premia edo arazoa.

Labur deskribatu inguruneke zein erronka, arazo, gabezia edo premia zehatzetan (kulturala, laguntzako, hezkuntzako, ingurumeneko, osasuneko, giza eskubideen ingurukoa...) eragin zuen proiektuak eta zein landu zuten neska-mutil parte-hartzaileek.

Adibideak: kolektibo jakin batzuen bazterketa, hiri-espazioen degradazioa, adinekoen bakartze-egoera, maskoten abandonoa eta animalien kontrako tratu txarrak, obesitate-ehuneko handia herrian...

3. Proiektua garatzen duten neska eta mutilen hezkuntza-premiak.

Proiektuaren egokitasuna justifikatu oinarri hartuta neska eta mutilen hezkuntza-premiak.

Adibideak: elkarbizitza-gatazka ikasgelan; neska-mutilen errespetu gutxiko jarrerak adinekoekiko; garrantzi handiko gaitasunak lantzeko beharra, hala nola hizkuntza-gaitasuna, matematikarako gaitasuna, zientzia, ekologia, eta abar; entrenamendurik eza taldean lan egiteko trebetasunetan.

4. Zerbitzuaren neurria eta barne hartzen dituen zereginen deskribapena.

Zerbitzuaren xedea eta neurria zehaztu eta labur deskribatu “ekin lanari!” delakoa, hau da, neska-mutilek egin zuten zerbitzuaren zeregin nagusiak eta horren eragina inguruan, eta, ahal den heinean, aipatzea lortu behar ziren emaitza nabarmenak.

Adibidea: zerbitzuaren xedea zen 1.500 biztanleko auzo bateko parke bat –bakarra auzoan eta oso degradatua– garbitzeko kanpaina bat prestatzea, antolatzea eta gauzatzea. Horretarako, ikasleek kartelak egin behar izan zituzten saltokietan paratzeko, kanpaina sare sozialetan hedatzeko bideo bat egin zuten, auzo-elkartarekin eta

merkatariekin bildu ziren kanpaina aurkezteko eta haien laguntza eskatzeko, eta Udalarengandik garbiketarako materiala eta laguntza logistikoa lortu behar izan zuten...

5. Hezkuntza-helburuak/ gaitasunak eta lotura curriculumarekin.

Hemen aipatuko dira proiektuak, neska-mutilei zuzenduta, sendotu nahi zituen hezkuntza-helburuak edo gaitasunak. Gomendatzen dugu modu labur eta argian aipatzea proiektuaren 3 edo 4 helbururik esanguratsuenak soilik.

Adibidea: lasterketa solidario batez bezainbatean, 1) legenarra duten pertsonen eta haien senideen bazterkeria-egoera ezagutzea eta agerian jartzea gaixotasun horren inguruan dauden aurreiritziak; 2) sentsibilizatzea eta konpromisoa hartzea desberdinkerien eta bidegabekerien aurrean, eta 3) auzoan proiektu solidario bat antolatzen eta garatzen ikastea.

Jarraian, egindako zerbitzua proiektuaren kokaleku izan ziren materia akademiko edo curriculum-guneetako edukiekin lotu beharko da, edo, bestela, gizarte-entitateen kasuan, berezkoak dituzten hezkuntza-alorrek. Gomendatzen dugu harreman hori marrazki edo eskema baten bidez adieraztea.

6. Ikasteko eta hausnartzeko jarduerak.

Deskribatu zerbitzuarekin zuzenean lotuta dauden ikaskuntza-jarduera nagusiak. Ikasgelako jarduerak izango dira, bai eta bertatik bertara egindako ikerlanak eta landa-lanak ere.

Adibideak: Parke publiko baten beharra ikertu eta hori antzeman, ikerketa bat gerraosteko elikaduraren inguruan, ikerlan bat urmael bat birgaitzeko landare-espezie egokienei buruz, Wonder liburuaren irakurketa eta hausnarketa desgaitasunen bat duten pertsonen pairatzen duten bazterketaren inguruan, obesitatearen arazoien eta ondorioen inguruko buru-mapa...

7. Neska eta mutilen parte-hartzea, protagonismoa eta antolaketa.

Deskribatu neska-mutilen protagonismoa eta nola hartu zuten parte hala proiektuaren hasieran nola garapenean eta ebaluazioan.

Adibideak: Nola erabaki zuen proiektua taldeak edo nola egin zuen bere, zereginen banaketa eta gauzatzearen gaineko kontrola, emaitzen balorazioa eta kontrola, ekintzen eta emaitzen aurkezpena...

8. Proiektuak eskatzen duen sare-lana.

Aipatu proiektua partekatzen duten entitateak, ikastetxeak edo erakundeak, eta azaldu zein den bakoitzaren egitekoa eta nola koordinatzen diren.

9. Gauzatzea eta hedapena.

Deskribatu nola azaldu / ospatu zen proiektuaren emaitza: festa bat, aintzatespen-ekitaldia, topaketa hartzaileekin, zentroaren ikasturte bukaerako jarduerak...

Halaber, azaldu behar da zer baliabide eta estrategia erabili ziren proiektua ingurunean eta familiei ezagutzera emateko: webgunea, informazio-bilerak, sare sozialak, prentsa, diptikoak, telebista...

10. Egutegia eta proiektuaren faseen deskribapena.

Proiektuaren garapenari buruzko denbora-eskema bat eta faseen deskribapen laburra aurkeztu.

11. Proiektua bultzatzeko behar diren baliabideak.

Laburbildu proiektua egiteko erabili diren berariazko baliabideak (materialak, ekonomikoak, giza-baliabideak), hala ikastetxeari nola gizarte-entitateari dagokionez, ahal den heinean.

12. Proiektuaren ebaluazioa.

Aipatu proiektuaren inguruan egindako ebaluazioaren ondorioak, hala arlo pedagogikoari nola zerbitzukoari dagokionez (proposatutako helburuak lortu diren ala ez, antzeman diren zailtasunak...), adierazi protagonisten parte-hartze maila, gizarte-entitateak edo hartzaileek egiten duten balorazioa, proiektuaren indarguneak eta hobetu beharrekoak, eta abar.

2. Eranskina - Bideoa aurkezteko oinarriak

Bideoaren helburua

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuaren inguruko agiri deskriptiboarekin batera doan bideoak xedetzat du proiektua irudiz hornitzea, bereziki abiatzeari dagokionez, baina, baita ere, parte-hartzaileek nabarmendu nahi dituzten alderdiak jasotzea eta proiektua -zehazki- eta Ikaskuntza-Zerbitzua -oro har- hedatzen laguntzea.

Eskakizunak

1. Aurkeztutako Ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bakoitzeko bideo bakarra aurkeztuko da.
2. Bideoak proiektua deskribatu beharko du, eta egile-eskubiderik gabeko irudiak eta soinu-bandak erabili beharko dituzte egileek bertan.
3. Ez da onartuko aurkeztutako proiektuaz besteko gaiak jorratzen dituen bideorik, publizitate-edukiak dituztenik edo Ikaskuntza-Zerbitzuaren pedagogiaren inspirazio-iturri diren balio etikoen kontrakorik.
4. Bereziki onartu eta baloratuko dira erreportaje laburrak eta telebista-kanaletan proiektuaren inguruan hedatutako berriak.
5. Bideoak YouTubera edo Vimeora igo behar dira "publikoa" modalitatean, eta deialdian aurkezten den proiektuaren agirian esteka txertatu beharko da.
6. Bereziki baloratuko dira, proiektua argi eta garbi irudiztatzeko xedea mantentzeaz gain, **gehienez ere 5 minutuko iraupena duten bideo laburrak**.

Lege-erantzukizunak

1. Proiektuaren arduradunek ziurtatu beharko dute bideoan agertzen diren lagunen baimena dutela, baita adingabeen gurasoena edo legezko tutorena ere².
2. **Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko Sareak, Educok eta Edebé argitaletxeak** ulertzen dute deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek eta gizarte-entitateek baimen hau behar bezala sinatuta dutela -famielik edo legezko tutoreek sinaturik-, eta, hortaz, ez dute bere gain hartzen inolako erantzukizunik.
3. Bideoaren egileek onartzen dute Creative Commons lizentziari (by-nc-nd)³ atxikitzea, eta, beraz, jakitun dira lehiaketara bidaltzen dituzten lanak nahi duenak erabili ahal izango dituela, betiere iturria aipatzen bada (egilea, ikastetxea edo gizarte-entitatea eta data).

² Bat etorrira Konstituzioaren 18.1 artikuluaekin -zeina Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak arautzen baitu- eta 18.4 artikuluaekin -zeina Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen baitu-.

³ Aitortza - Ez Komertziala - Lan eratorririk gabe (by-nc-nd).

4. **Espainiako Ikaskuntza-zerbitzuko Sareak, Educok eta Edebé argitaletxeak** ez dute inolako lege-erantzukizunik bere gain hartuko aurkeztutako bideoen edukiez bezainbatean, ezta jabetza intelektualaren, industrialaren edo irudiaren ingurukoaren arloan ez betetzerik egonez gero ere; halaber, ez dira erantzule parte-hartzaileek zati batean baino ez badituzte betetzen deialdi honetako oinarriak, eta egileak soilik izango dira bideoaren eta bere edukien lege-erantzule.
5. Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta haiek betetzeko konpromisoa.